



Bertsotzale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsotzalea

www.bertsotzale.eus

Bertso plazak, erdi hutsik

Pandemia hasi zenetik egoera pixkanaka hobetu bada ere, gaur egun lehengo bertso plaza kopuruaren %25 egiten da soilik.

Fruituak erruz ematen ari zen plaza basamortu bihurtu zen martxoan. Orduetik egoera bera zein arauak aldatzen joan dira, eta sasoi bakoitzean itxura bat edo beste hartu du plazak. Une batean ere ez lehen zeukana.

COVID-19ak bertso plaza osoa bertan behera utzi zuen martxoaren 13an, eta orduetik maiatzera arteko saio guztiak ezerezean geratu ziren. Etenaldi horren ondoren, bat-bateko online bertso saioak eskaintzen hasi ziren bertsolari batzuk etxetik, musutruk.

Larrialdi egoera altxa zenean lanera joateko baimena bazegoen, baina kultur ekitaldiak antolatzea ez. Beraz, maiatzaren hasieran Bertsotzale Elkarte eta Lanku Kultur Zerbitzuak, elkarlanean, Amasa-Villabonako egoitzan bertso saioak grabatzen hasi ginen. Eta antolatzaileei on line emisiorako aukera eskaintzen. Saioek harrera oso ona izan zuten.

Maiatzaren bukaeran bigarren fasera pasa ginen. Kultur ekitaldiak antolatu zitezkeen, baina aforo murriztuarekin. Antolatzaileei asko kosta zitzairen zerbait antolatzen hastea, beraz, egoera ikusita, ekainaren 5ean bertso saioa antolatu genuen Amasa-Villabonan, segurtasun neurri guztiak bermatuta. Helburua, besteak beste, kultur ikuskizunak osasun ikuspegitik ekitaldi seguruak direla erakustea zen.

Ekainaren 8an pasa ginen hirugarren fasera, eta, hor, aforoak eta aukerak gehiago ireki ziren. Bertsotzale Elkarteak antolatutako saioa ikusi ostean, antolatzaileak animatzen hasi ziren, beraz, ekainaren erditik aurrera saioak antolatu dira zenbait herritan. Hala ere, jairik egon ez denez, antolatu diren saioak kultur programazioaren baitan antolatu dira. Gailendu den formatua jaialdia izan da, eta beste plaza mota batzuk, ortoduak adibidez, desagertu egin dira. Jaien egitarauan oinarritutako plaza libreak ere ia erabat desagertu dira.

Etorriko denaren kezka

Orokorrean, ziurgabetasun handia dago plazari dagokionez, baita, gorabehera asko ere. Oier lurramendi Bertsotzale Elkarteko sustapen arduradunak eta Marta Agirrezabala Lanku Kultur Zerbitzuetako kudeatzaileak adierazi dutenez lehengotik "oso urruti" gaude. "Saio asko lotu eta bertan behera geratzen dira, eta udazkena ere bide beretik datorrela ematen du", esan dute. "Gaur egun, lehengo kopuruaren %25 egiten da bakarrik. Horregatik, kezka begiratzen diogu etor daitekeenari".

Dena dela, antolatu diren saioek "oso erantzun ona" eduki dutela azpimarratu nahi izan dute lurramendik eta Agirrezabalak. "Bai bertsolarien eta bertsozaleen aldetik, baita, antolatzera

animatu diren antolatzaileen aldetik ere".

Kultur ekitaldiak seguruak direla frogatu den arren, ziurgabetasunak eta beldurrak kalte handia eragin duela ere gaineratu dute. "Aurreikuspenak ez dira onak eta kezka handia daukagu. Honek guztiak oso egoera larrian utz dezake bertso mundua ez badira ekitaldiak gauzatzeko laguntzak edo bermeak ematen", diote lurramendik eta Agirrezabalak. "Denon ahalegina izango da beharrezkoa".



ANE ZUAZUBISKAR IÑARRA
Zarautz, 2020-IX-04
Lizardi Saria

Doinua: Izarren hautsa egun batean

Eskerrik asko Motxian eta gora ta biba Lizardi iraila haseran egitearren rarotasunean argi. Azken agurrak non du bidea? Ez naiz ni berez ba sensiblea nahiz ta aritu kantari... Errimetan maiz herren jardun naiz eta ideietan nagi baina gustura aritu gara zuen aurrean kantari ta nahiz ez dudan gaur egin nahita ospitalean dugu aitaita niri gelditzen zait handi eta txapela berari!

Bertsoaldi gehiago
www.bertsoa.eus atarian



Kultur ekitaldiak denon osasuna bermatuz egin daitezkeela ikusi dugu azken hilabeteetan. / XDZ

Irailean hasiko dira Xilaba eta Bizkaiko Txapelketarako sailkapen fasea

Segurtasun neurriak kontuan hartuta antolatu dira saioak eta arriskuak ekidingo dira, guztion osasuna bermatuta egon dadin.

Irailean hasi eta azarora bitartean jokatuko da 2020ko Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko Bertsulari Txapelketa. Bizkaian, ostera, udaberrian jokatzekoa zen sailkapen fasea egingo dute irailaren 16tik 24ra bitartean.

Xilabari dagokionez, irailaren 19an jokatuko da lehen kanporaketa Hiriburuko La Perle aretoan, eta horren ondotik etorriko dira Urdiñarbeko, Ainhoako eta Larzabalgo kanporaketak. Hiru final laurden izanen dira gero: Bokalen, Sohütan eta Izturitzen; final aintzineko biak Izpuran eta Bardozen jokatuko dira; eta, azkenik, finala, Donibane Lohizuneko Jai Alai ezker paretan izango da azaroaren 21ean. Herrien aukeraketarekin txapelketa leku berrietara iritsi dela zehaztu dute Bertsularien Lagunak elkarteko kideek, euren esanetan, "Ipar Euskal Herri guztiak merezi baitu bertsuaren haizea sentitzea".

Parte-hartzaile kopurua azpimarratzekoa da aurten: 28 bertsularik kantatuko dute guztira. Gainera, gazteen kopuruak gora egin du, baita emakumeenak ere. Txapelketara bueltatu diren bertsolariak ere badira tartean.

Saioei zein parte-hartzaileei buruzko informazio osoa www.bertsozale.eus atarian dago ikusgai.

Bizkaian, sailkapen fasea

Udaberrian jokatzekoa zen fasea irailera atzeratu zuen COVID-19ak. Beraz, udazkenaren ataria jokatuko da Udabarria Bertsotan 2020.

60 bertsularik eman zuten izena fase honetan, eta, kopuru hori kontuan hartuta, hamar saio egingo dira. Aipatzekoa da Bizkaiko eskualde guztiek daukatela ordezkaritza. Fase honetatik puntuazioz sailkatuko dira bertsolariak Bizkaiko Bertsulari Txapelketara.

laz hartu genuen egitura aldatzeko erabakia. Sailkapen faseko hamar saioak bost egunetan jokatuko dira: egun eta ordu berean, herri desberdinetan, saio bi egingo dira. Horrela, bost egunetan egingo dira hamar saioak.

Sarrerren salmenta, martxan

Xilabari dagokionez, saio guztietarako abonamendua egongo da aukeran. Lortu ahal izateko, Bertsularien Lagunak elkartera deitu eta izena emanez gero (05 59 54 15 04). Abonamendua izenduna izanen da.

Banakako sarrerei dagokionez, kanporaketetako, final laurdenetako eta final aintzinetako sarrerak lekuan bertan erosi ahaliko dira. Finaleko sarrerak salmenta puntu batzuetan eta Internet bidez erosi ahal izango dira. Informazioa www.bertsozale.eus atarian topatuko duzue.

Bizkaiari dagokionez, ahalik eta babes handiena lortu nahian, Internetez salduko dira sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian.

Segurtasun neurriak

Pandemia dela eta, leku bakoitzean indarrean dagoen araudia beteko da antolakuntzatik.

Bai Xilaban, bai Bizkaiko sailkapen fasean, maskararen erabilera derrigorrezkoa izango da. Gainera, Bertsularien Lagunak Elkartetik adierazi dutenez, "usaian baino goizago" etortzeko eskatuko zaie bertsozaleei.

Bizkaian parte-hartzaile guztientzako protokolo berezia egin dute. "Aforoak asko mugatu dira, eta arriskuak ekiditeko protokoloak martxan ditugu", adierazi dute.



Xilaban kantatuko duten bertsolariak. / XDZ

Larunbatean hasiko da **Hitzetik Hortzera**

Irailaren 12an itzuliko da bertsoaritzza programa ETB1era, 21:00etatik aurrera.

Larunbat honetan hasiko da Hitzetik Hortzeraren denboraldi berria, hogeita hamaikagarrena. Martxoaren amaierara arte, 26 saio osatuko dute astez astekoa eta, bertsoa izango da programaren erdigune. Horren guztiaren gidari Eider Perez izango da aurten ere, eta berak aurkeztuko dizkigu bertsoaritzaren inguruan lanean ari diren hamaika lagun eta kontu.

Oraingoan, aulki gorrian eseriko dira programako protagonistak, eta emanaldi berrien eta bertso ekitaldien hitzorduak aurreratuko dizkigu saioak. Horrez gain, bertso-eskolaz bertso-eskola joanda, kideek gogoan dituzten bertsoaldi kuttunak ezagutuko ditugu. Gainera, iaz bezala aurten ere izango da bertsoari bati loturiko programa

berezirik, baita txapelketen ingurukorik ere. Denboraldia hasteko, aste honetan eskainiko den lehenengo programa, bertsoaritzan COVID-19ak izan duen eraginari buruzkoa izango da.

Hitzetik Hortzera Bertsozale Elkarteak ekoizten du EITBrekin elkarlanean. Azken bi denboraldietan legez, Txakur Gorria sormen taldea ari da gidoilari lanetan. Gainerako lantaldea ere mantendu egingo da.

Aipatu bezala, egun eta ordutegi aldaketarekin dator bertso telebista saioa: txirrindularitza dela eta, denboraldiaren hasieran behinik behin, igande eguerditik larunbat gauera pasako da Hitzetik Hortzera.



Eider Perez izango da Hitzetik Hortzerako aurkezle denboraldi honetan ere. / XDZ

Udazkenerako kultur programazioa zabala **eskainiko** du Lankuk

Egoera berezia izan arren, udazkenerako hainbat proiektu daude martxan: Euskaraldirako eskaintza zein bestelako emanaldiak.

Ezohiko udak bertso plaza hankaz gora jarri badu ere, Lanku Kultur Zerbitzuetan udazkenera begira jarrita gaude jadanik.

Hainbat proiektu ditugu esku artean. Alde batetik, Euskaltzaleen Topagunearekin elkarlanean, 2020ko Euskaraldirako kultur eskaintza Lanku bidez egingo da edizio honetan ere. Bi emanaldi eskainiko dira: *Txor txor* bakarrizketa eta... *nahi dugu hitz eta jolas* bertso saioa. Irailaren 9an estreinatuko da *Txor txor* Donostiako Bagera Elkartearen eskutik, Larrotxene kultur etxean.

Beste alde batetik, udazkeneko kultur eskaintza berria prest dugu jada ohiko kultur programatzailerentzat: *Koplariak koplari*, koplak eta musika (Xabier Amuriza eta Agus Barandiaran); *Orainmenean*, bertso saio berezia (emakume bertsolariak); eta *Urpekekariak*, haurrentzako bertso-antzerkia (Eneko Arrate eta Aissa Intxausti).

laz estreinatutako emanaldiak ere aurrera doaz, eta udazkenean eskainiko dira.



Puntu jarrita

UXUE MESA GARMENDIA

Zuk proposatutako galderari, iratxe, erantzun on edo egoki baten bila behar baino buelta gehiago eman ditudala errango nuke. Galdera lehen aldiz irakurri nuenean, gehiegi pentsatu gabe etortzen zaizkizun bat-bateko erantzunak bezala hurbildu zitzaizkidan erantzun motz eta zuzen bat: zuek, lagunak, bertso familia. Eta dudarik gabe, hori da nire iritziz zure galderaren erantzun egokiena. Nire gustukoena bai behintzat.

Zuk aipatutako oholtza gainean hanka sartze horren beldurrik, bertsoari bertez modu batera ulertzea bultzatu gaituela errango nuke. Txapelketetan bakarrik baino askoz erosoago sentitzen naiz errima doinu eta akorde artean, ganbarako gitarrarekin zuekin batera kantatzen. Eta bertso mundua modu horretara disfrutatuta nahi duten bertze borts kiderekin topo egitea altxor bat izan da.

Nik ere zuk bezala nire lekua aurkitu dut eta gustura nago bertan. Hori dela eta, oraingoz gitarrari eta zuei helduta jarraituko dut. Edonoiz egin dezaket aldaketa, arrazoi horregatik nago lasai, agian noizbait babes lekutik atera eta hanka sartzeari beldurra kenduko diodalako. Denbora kontua izan liteke edo ez.

Hariari berriro heldu nahian, gu eta entzulearen artean sortzen den giro goxoak ere aunitz erakartzen nauela azpimarratuko nuke. Azken finean, bertso zaletasun handia dagoen inguru batean bizi gara eta egiten ari zaren horrekin zuk gozatzeaz gain, bertzei gozaraztea plazer bat da.

Euskarak indar gutxiago duen lekuetan, eta zaletasuna urriagoa den horietan bertsoari bertez magaletik aldentzea errazagoa izango dela suposatzen dut. Bidea askoz errazago egiten baita, bidelagunak asko direnean. Zuk Josu, "bertsolagunei" nik bezainbertze garrantzi ematen al diezu doinu, errima eta neurrien txoko honetan?

Koplak

Pello Mari Otaño bekaren ekitaldia

Kilometroak 2020k eta Mintzolak deitutako ikerketa proiektu sariaren aurkezpena urriaren 2an izango da Zizurkilgo herrigunean, 18:00etatik aurrera. Bertan izango dira Kilometroak 2020ko Hernandorena Elkarteko, Zubimusu Ikastolako eta Mintzolako ordezkariak. Gainera, Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkargunekok aurkeztuko dute haien ikerketa, proiektuari buruzko azalpenak emanez eta adibideak jarritz. Aurkezpenaren ondotik, bertso saioa izango da, 19:00etan, Kilometroak 2020k antolatuta. Laster eskainiko dugu informazio gehiago.

Poto-Finixa



Antolatzaile petoak!

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Elkarteko kideen iritzi zutabeak eta gogoetak, webgunean

Bertsozale Elkarteko kideen eta bertso mugimendukoen iritziak plazaratzeko gunea sortu dugu webgunean. Bertsozale Elkartea gero(r)a mugitzen aldizkarian jaso dira zutabe batzuk, eta, horiez gainera, beste zenbait ere gehituko ditugu webguneko blog horretara. Elkarteko koordinatzaileenak daude argitaratuta eta, asteon, Jexux Mari Irazurena ere plazaratu dugu. Pixkanaka, gehiago joango zaizkie batzen.



Eskuragarri www.lanku.eus atarian

PUBLIZITATEA